

Edizioa: Nafarroako Lurzorua eta Etxebizitzak SA, CIF: A31212483, 2019ko iraila

✉ rehabilita@nasuvinsa.es

Finantzaketa: www.sustainavility.eu

Diseinua eta edukiak: Esther Muñoz Alonso

Irudiak eta maketazioa: Julián Abad Ezquerro



Nafarroa, energia jasangarria bultzatzen duen herrialdea

PARTNERS



Proiektu honek Europar Batasuneko Horizonte 2020 ikerketa eta berrikuntza programatik hartu du finantzabidea, dirulaguntza emateko 785045. erabakiaren ondorioz. Edukiak egileen ikuspegia baizik ez du adierazten, eta EASMEK erantzukizunik ez du informazio hori nola erabiltzen den.

BEROKUNTZA ZENTRALAK ETA AUZO-BEROKUNTZAK



NAFARROA, ENERGIA JASANGARRIA SOSTENGATZEN DUEN ERREGIOA

Auzo-berokuntzaren onurak

Efizientzia energetikoa handiagoa da, banakako berokuntzen eta berokuntza zentralaren aldean, eraikin batzuk beroa sortzeko zentral bat-bera baitute. Bero-eskari asko daudenez, berokuntza eta etxeko ur beroaren ordu erabilgarriak gehiago aprobetxatzen dira, eta, hartaz, potentzia txikiagoarekin eskaria guztiz betetzen da.

Mantentze-lanak espezializatzen dira, bero-zerbitzuak automatizatzen dira, etengabe gainbegirtzeko, eta kostuak murrizteko.

Kontratzen den potentzia elektrikoa murrizten da, eraikin batzuk beroa sortzeko zentral bat-bera baitute.

Auzo-berokuntzan eraikin batzuk berokuntza bat-bera dute, eta banaketa-hodiak lurpean daude hiri barruko bideetan. Sistema hauetan, beroa sortzeko ekipok galdara-gelan daude, eta hortik beroa banatzen da hodi-sare batetik. Energiaren galera minimizatzeke, hodiak egoki isolatu behar dira beroa kontsumitzen duten eraikinetarainoko bidean.

Espazio erabilgarria handiagoa da eraikinetan, beroa sortzeko gela bat-bera baitute. Biomasa gehituko aukera.

Beroa kanpoan sortzen denez, eraikinetako instalazioak sinplifikatzen dira, eta eragozpenak (zaratak, bibrazioak, etab.) gutxitzen dira.

Berokuntza zentralaren onurak

Berokuntza zentralen eraikin bakar bateko etxebizitza guztiek beroa sortzeko zentro bat-bera dute. Instalazio mota hori ohikoa zen 70 eta 80ko hamarkadetan, eta oso efizientea da, baina eraikin batzuetan bero banaketa ezin da aise erregulatu.

Berokuntza zentralaren balio-bizitza luzeagoa da, banakako galdaren aldean.

Etxebizitza bakoitzari dagokion erregaiaren kostua txikiagoa izanzen da, banakako galdaren aldean.

Sistema zentralizatuaren errendimendua handiagoa da potentzia txikiagoa duten hainbat sistemen errendimenduen baturarekin konparatuta.

Ekoizpen zentralerako sistema instalatzeko eta mantentzeko kostua txikiagoa izanzen da, oro har, banakako hainbat sistema instalatu eta mantentzeko kostuaren aldean.

Istripu-arriskua txikiagoa da, etxebizitza bakoitzean beroa sortzeko instalazio bat izatearekin konparatuta.

Sistema zentralen eskaria betetzeko behar den potentzia termikoa txikiagoa da, banakako sistemek guztira behar dutenarekin alderatuta. Hasierako inbertsioa txikiagoa da, bai eta aldi behingo gastu energetikoa ere.

Espazio erabilgarria handiagoa da etxebizitzetan, beroa sortzeko gela bat-bera baitute. Biomasa gehituko aukera.